



Donostiako  
Elizbarrutia  
Diócesis de  
San Sebastián



# Gotzainaren eskutitza

Elizbarrutiko kide maiteak:

Otsailaren 24an, igandea, “Elizbarrutiaren Pastoraliza Beharrak” izeneko urteroko diru-bilketa egingo da igandeko eukaristia guztietan. Elizbarrutiaren pastoraliza zerbitzuen kostua ordaintzeko eskea da. Elizbarrutiko Pastoralizaren egitura eta Elizaren bizitzako arlo askotarikoetan eskaintzen diren zerbitzuak ahalik eta modurik pedagogikoenean azaltzeko baliatu nahi dugu aukera.

Une honetan, euren pastoral kontseiluak eratzen ari dira artziprestalde berriak, eta Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua osatzen ere ari gara; beraz, praktikoa deritzot Elizbarrutiko bizitza pastoralaren egitura ahalik eta xehetasun gehienekin ezagutzeari.

Begi bistakoa bada ere, azpimarratu behar da Gotzaindegiaren pastoraliza organismoek artziprestaldearen pastoraliza animazioaren eta parrokiaren zerbitzura jartzea dutela xede. Eta, horretarako, funtsezkoa da zerbitzu horien xehetasunak ezagutzea, bai eta animatzaileekin harreman erraza eta hurbila edukitzea ere.

Espiritu Santuaren dohainak eskatuko ditugu, geure pastoraliza lanean argiak eta joriak izan gaitzen. Nire bedeinkazioarekin:

**+ Jose Ignazio Munilla  
Donostiako Gotzaina**

# IGLESIA DIOCESANA DE SAN SEBASTIAN



## Artzipresteak:

### 1. BETERRI

Jesus Mari Arrieta Sagasti  
beterri@elizagipuzkoa.org

### 4. GOIERRI

Pedro Lascurain Sudupe  
goierri@elizagipuzkoa.org

### 2. DONOSTIA

Esteban Munilla Aguirre  
donostia@elizagipuzkoa.org

### 5. MENDEBALDE

Horacio Argarate Sarasketa  
mendebalde@elizagipuzkoa.org

### 3. EKIALDE

Rafael Olaizola Uribe-Echeverria  
ekialde@elizagipuzkoa.org

### 6. UROLA-KOSTA

Jokin Lizaso Esquisabel  
urola-kosta@elizagipuzkoa.org

# **ELIZBARRUTIKO ZERBITZUAK BIKARITZATAN SAILKATUAK**

## **Bikario Nagusia:**

Juan M<sup>a</sup> Olaechea Garaicoechea  
bikarionagusia@elizagipuzkoa.org

## **Bizitza Sagaratuarentzako**

### **Gotzain Bikarioa:**

Jon Korta Arcelus, OCD  
erlijiosak@elizagipuzkoa.org

## **Ebanjelizatze Pastoraltzarako**

### **Gotzain Bikarioa:**

Mikel Aranguren Zubialqui  
mikelaranguren@elizagipuzkoa.org

## **Bikario Judiziala:**

Sebastián Uria Eizaguirre  
tribunala@elizagipuzkoa.org

## **Sozial eta Misio Pastoraltzarako**

### **Gotzain Bikarioa:**

Javier Andonegui Mendizabal  
xabierandonegi@elizagipuzkoa.org

## **Kantziler-Idazkari Orokorra:**

### **Tomás Iraola Sarasúa**

idazkariorokorra@elizagipuzkoa.org  
canciller@elizagipuzkoa.org

## **Liturgia eta Espiritualitate Past.**

### **Gotzain Bikarioa:**

Unai Manterola Albizu  
unaimanterola@elizagipuzkoa.org

## **Gotzain Elizako Deana:**

Luis Ricardo Apestegui Cardenal  
koldo@apestegui.com

# **EBANJELIZATZE PASTORALTZARAKO GOTZAIN BIKARITZA**

- ❖ **Haurren Katekesirako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Gazteekiko Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Irakaskuntzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Bokazio Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Ezkontza, Familia eta Bizitza Past. Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Helduen Katekumenotzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Apostolutza Sekular eta Ebanjelizatze Berrirako Zerbitzua**

# ❖ **Haurren Katekesirako Elizbarrutiko Zerbitzua**

*Ardurduna:* Mikel Iraundegui Achabal  
943 28 50 00 haurrak@elizagipuzkoa.org

## **Helburua:**

Haurren Katekesirako Elizbarrutiko Zerbitzuaren helburua da gure elizbarrutiko katekesiaren errealitatea ezagutzea eta aztertzea: beharrak, zailtasunak, aukerak era erronkak. Horrekin batera, katekesiaren orientazio eta irizpide oinarrizkoak bultzatu eta garatzea du xede, bai eta katekistak prestatzen jarraitzea ere, berrikuntza espiritual, teologiko eta pedagogikoa lortze aldera, horrela katekesi-jarduera sakonago hobetzeko eta eguneratzeko.

## **Ekintzak:**

**-Katekisten Elizbarrutiko Topaketa:** prestakuntza eta elkarbizitzarako jardunaldia, Donostiako seminarioan.

**-Haur Misiolarien Topaketa:** urtero egiten dira topaketak, 6-13 urteko haurrentzat, zein horien guraso eta katekistentzat. Misioekiko sentsibilitatea sustatzea dute helburu, senidetasun eta elkartasunean hezita.

**-Katekisten prestakuntza:** gaur egun, gero eta egoera eta erronka berri gehiagori egin behar die aurre katekesiak. Hori dela-eta, katekista eta gurasoentzako prestakuntza topaketak eskaintzen dira artziprestalde eta parroketan.

**-Metodologia berrien inguruko prestakuntza:** Katekesiak bere metodoak etengabe berritu beharra dauka, hizketa egokitua bilatu behar du, mezua transmititzeko baliabide berriak erabili behar ditu.

- **Oratorioak:** mundu osoko katekesi adituek katekesi espiritualaren aldeko apustua egiten dute egun. Ez datza fedea ikastean bakarrik, fedea bizitzen ikastean baizik. Oratorioak oso ongi erantzuten dio katekesiak gaur egun duen erronkari: ezagutza gisa bakarrik transmititu beharrean, fedea Jainkoarekiko esperientzia gisa transmititzeari.

- Life Teen: katekesi-saio erakargarri, dinamiko eta parte-hartzaileak antolatzen lagunduko dizuten materialak prestatzen ditugu, haur eta gazteei Jesusekin elkarretaratze pertsonala edukitzen laguntzeko.
- Artzain Ona: Biblia eta Liturgia dira katekesiaren iturriak, eta haurren balio espiritualak ditu ardatz; haurren prestakuntza morala Jainkoaren Hitzaren argitan eskaintzen da, eta historia justizian zein elkartasunean oinarrituta eraikitzeko oinarriak eskaintzen dizkie.
- Zatoz eta jarraitu niri! “Viens, suis-mois!”: Hau proposamen bat da parrokia eta ikastetxeetan fede-esnaera eta katekesirako. Erabil daiteke famili giroan eta otoitz-, adorazio- eta bestelako taldeetan ere.  
Jainkoaren Hitza entzunez, otoitz-giroan, Jaunarekin elkartzen laguntzen du, Hitzak haurren bizitza argi dezan ahaleginduz. “Viens, suis-moi!” katekesi-bideak material era desberdinak erabiltzen ditu: katekistaren liburua, siluetak, CDak.

- **Katekistentzako erretiroak**: katekisten espiritualtasunean sakontzea eta laguntzea, euren bokazioa garatzen lagunduko dien esperientzia bat eskainita.

## ❖ **Gazteekiko Pastoraltzarako E. Z.**

*Arduraduna*: Mikel Aranguren Zubialqui

697 726 975 [info@gazteliza.org](mailto:info@gazteliza.org)

### **Helburua:**

- Parrokien eta ikastetxe, talde eta mugimendu kristauen presentziaren inguruan egituratutako Gazteekiko Elizbarruti Pastoraltza bultzatzea. Gazteen fedea elikatzeko eta eliz komunitatean hobeto integratzeko lekuak, esperientziak eta prozesuak sustatzea. Fede prozesuetan integratu gabeko gazteei zabalduetako topaketa ekimen berriak bilatu eta probatzea.



## **Ekintzak:**

- **Otoitz topaketak:** kontenplazioa, meditazioa, adoratzea, musika eta isiltasuna.

- **Prestakuntza topaketak:** gazteekiko pastoraltzaren erronkei aurre egiteko orduan, pastoraltza horrek berekin dituen ardurak betetzeko ongi prestatutako agenteak edukitzea da kezka nagusietako bat.

-**Gogo-jardunak:** gogo-jardunen esperientzia ezinbestekoa eta oinarrizkoa da kristautentzat, baina, bereziki, Kristorekin topaketa intimo, sakon eta pertsonala bilatzen duen gaztearentzat.

-**Gorantz:** hilabeteko bigarren larunbatean, ibilbideak egiten ditugu gazteekin, naturaz gozatzearekin batera kreazioan eta adiskidetasunean Jainkoa aurki dezaten.

-**Boluntariotza esperientziak** Kalkutan, Karitateko Misiolariekin.

-**Erromesaldiak:** Xabierraldia, Fatima, Gazteen Mundu Jardunaldia, Arantzazura igoera, Lourdes...

-**Erromesaren bidea:** gazte guztientzat eskainitako udako esperientzia bat. Haien hasierako arrazoiak zeinahi direla ere, eraldatze pertsonalerako aukera da. Donejakue bidea, via Francigena (Italia), Ignazioren bidea... Abenturaz, dibertsioz, adiskidetasunez, espiritualtasunez, Jesusen ezagutzaz eta Jainkoarekiko esperientziaz betetzeko 140 km.

-**Gazteen Pazkoa:** Pasioaren misterioak eta Jesusen Piztuera ardatz dituzten egunak dira. Gogoetarako, fedea ospatzeko, otoitzerako eta laguntasunerako egunak.

- **Udalekuak:** Elizbarrutietako parroketako haurrekin eta gazteekin elkartzeko eta elkarbizitzarako aukera.

## - Unibertsitate Pastoralta

- Unibertsitatea egia sutsuki bilatzeko bizitzaren garaia da, norberaren inguruko egia, besteena eta munduarena. Unibertsitate Pastoralta egia bilatzen lagunduko diguten balioak eta jarrerak sustatzeko sortu den elizbarrutiaren ekimen bat da. Unibertsitate ikasle guztiei dago zuzendua, ez kristauei bakarrik. Horrela, galderak partekatzea posible izango dugu, denok batera erantzunak bilatzeko.
- Espiritu Santu parrokian astelehenero elkatzen gara 19:30 ean Ordu Santua ospatzeko. Kurtsoan zehar Santiagoko bidea antolatzen da, eta baita irteerak mendira. Bolondres parte hartzeko zenbait ekintza eskeintzen zaie, eta gaur eguneko zenbait gai tratatzeko topaketak antolatu ere.

*Kontsiliaria:* Francisco Jose Marin Porgueres

✉ [unipastoralta@elizagipuzkoa.org](mailto:unipastoralta@elizagipuzkoa.org)

## ❖ Irakaskuntzarako Elizbarrutiko Zerbitzua

*Arduraduna:* Francisco Javier Palmero Chao

943 28 50 00 [irakaskuntza@elizagipuzkoa.org](mailto:irakaskuntza@elizagipuzkoa.org)

### Helburua:

- Ikastetxe erlijiosoetako hezkuntzaren eta ikastetxe horietako irakasleen ebanjelizazio-dimentsioa sustatzea. Hezitzaile kristauaren lana babestea, ikastetxean fedearen lekuko den heinean.
- Eskola katolikoaren hezkuntza proiektuekin kolaboratzea eta horren kristau nortasuna indartzea. Erlijio irakasleen hezkuntza-lana babestu eta sendotzea.

### Ekintzak:

- Erlijio irakasleen eta itunpeko ikastetxe katolikoetako **irakasleen prestakuntza etengabea**. Hileroko prestakuntza ikastaroen eta hitzaldien

hileroko antolaketa Erlijio Zientzietarako Pio XII Goi Ikastegian, eskola publikoko erlijio irakasleak eta itunpeko ikastetxe katolikoetako irakasleak egunean egon daitezten.

- **Bakearen asterako** dinamikak Gipuzkoako ikastetxe eta institutuetan. Ikastetxeetara bisitak, Frantzisko Aita Santuak urtero bakearen aldeko mundu jardunaldian aldarrikatzen duen mezua lantzen laguntzeko dinamika egiteko, ikastetxeek eskatuz gero.

- **Zinema Espiritualaren Astea**, Gipuzkoako ikasleentzat. Gaitasun espiritualak lantzeko pelikulen proiektzioa. Ikasgelan lantzeko materiala ematea.

- **Hitzaldiak eta solasaldiak** parrokia edota ikastetxeetan. Parrokia edo ikastetxeetara joan, Ikastetxeko Erlijio Irakaskuntzarekin lotutako informazioa eta aholkuak ematera, hala eskatuz gero; batez ere, gurasoek euren seme-alabentzat irakaskuntza erlijiosoa askatasunez hautatzeko dituzten eskubideei dagokienez.

### **Elizbarrutiko Ikastetxeak (ELIKEL Fundazioa):**

- ELIKEL Irakaskuntzarako Elizbarrutiko Fundazioa, irakaskuntza, heziara eta haurren eta gazteen prestakuntza, Ebanjelioaren printzipio eta balioen arabera, sustatzeko helburuarekin sortu zen.
- Elizbarrutiko lau ikastetxeek osatzen dute fundazioa: Iraurgi (Azpeitia), Larramendi (Donostia), Ama Guadalupekoa (Hondarribia) eta San Mikel (Mutriku).

## ❖ **Bokazio Pastoraltzarako E. Z.**

*Arduraduna:* M<sup>a</sup> José Moreno Marqués  
943 28 50 00 bokazioa@elizagipuzkoa.org

### **Helburuak**

- Helburua nagusia da Elizbarrutian bokazioaren kultura indartzea, Bokazio Pastoralta Pastoralta Nagusiaren jatorrizko ikuspegia izan dadin. Ondorengo helburu partikularrak helburu nagusi horren emaitza dira:

- Bokazio Pastoraltzaren zeharkako presentzia bultzatzea Elizbarrutiaren Pastoralta Nagusian.
- Kristau Komunitateari guztiok Bokazio Pastoraltzaren agente garelara sentiaraztea.
- Bokazioen aldeko jardunaldiak bultzatu eta sustatzea.
- Bokazioen aldeko otoitza sustatzea.
- Bokazioak bilatu eta horren ondoan egotea.

### **Ekintzak:**

- Bokazioen aldeko Astea
- Bizitza Sagaratuaren Eguneko eukaristia
- Prestakuntza topaketak, otoitza edota ospakizuna, horietako batzuk Elizbarrutiko beste zerbitzuekin batera egin dira.
- Ebanjelizazio Bikarriotzaren ekintzetan parte hartu
- Bakearen aldeko Astea edo Zinema Espiritualaren Astea, besteak beste.

### **Nola parte hartu elkarlanean:**

Bokazio Pastoraltzako Elizbarrutiko Zerbitzu honetatik dei egiten diegu denei, pastoralta honetako kide eragile senti daitezen, bokazio-pastoralta kristau-elkarte osoaren erantzukizuna delako. Eta nola izan gaitzke kide eragileak?

- Bokazio Pastoraltzako Elizbarrutiko Batzordeko izanez.
- Bokazio Pastoraltzako Elizbarrutiko Batzorde honetako partaide diren artziprestaldeetako ordezkari izateko zeure burua

borondatez eskainiz edota zeure artziprestaldean pastoraltza honetako kontaktu, laguntzaile eta eragile izanez.

- Eratzen diren topaketa eta ekintzetan parte hartuz.
- Bokazioen alde otoitz eginez eta otoitzaldiak eratuz.
- Garrantzitsuak izan daitezkeen ekintzak antolatzeko ekimenak bultzatuz.
- Parrokian arlo pastoral desberdinetatik antolatzen diren ekintzetan, gazteei beldurrik gabe bokazio-planteamendua eginez.

## ❖ **Ezkontza, Familia eta Bizitza Pastoraltzarako E Z**

❖ *Ardurduna:* Mikel Iraundegui Achabal

943 43 18 11 y 650 307 183      familia@elizagipuzkoa.org  
943431177 y 6503017133      cofae@elizagipuzkoa.org

### **Helburuak:**

Ezkontza, Familia eta Bizitza Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzuak ondorengo helburu hauek ditu:

- **Senargaiari eta emaztegaiari** ezkontzako sakramenturako bidean **laguntzea**, ezkontza heldutasunez eta sakontasunez ospa dezaten.
- **Senar-emazteei eta familiei bizitzako** edozein etapa eta egoeratan **laguntzea**, giza eta kristau betetasuneranzko bidea elkarrekin bilatu, aurkitu eta egiteko.
- Sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren bitartez **bizitzaren eta giza duintasunaren zerbitzura egongo den kultura sustatzea**.
- Familientzako Aholku Etxearen bitartez, laguntza, orientazioa, norbaitek entzun ahal izateko aukera eta terapia eskaintzea hori behar duen pertsona eta familia orori.

### **Ekintzak:**

Ezkontza, Familia eta Bizitza Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzuak egindako ekintzak ondorengo talde hauetan banatu dira:

- *Ezkontza aurreko topaketak* artziprestalde bakoitzean: ezkontzera doazen senargai eta emaztegaien prestakuntza eta horiekin elkarrizketa, sakramentuari eta ezkonbizitzari zein familia bizitzari buruz.

- *Ezkondu ondorengo topaketak artziprestaldeetan*: Ezkonberrientzako laguntza lehen urteetan ( Equipos de Nuestra Señora taldearen laguntzaz)

- *Familien arteko topaketak eta erretiroak*: hilean behin, familien elkarbizitzarako, prestakuntzarako eta otoitzerako leku bat ahalbidetzea.

- *Bizitza espirituala*: familientzako gogo-jardunak Loiolan, eta Familia Sakratuaren Jardunaldia eta Biziaren aldeko Jardunaldia.

- *Sentsibilizazioa eta prestakuntza*: Elizbarruti (Familiaren Astea) eta artziprestalde zein parrokia mailako prestakuntza saioak (Guraso Eskola eta abar) hainbat gairen inguruan.

- Elizbarrutiko beste zerbitzuekiko lankidetzeta eta kolaborazioa: haurren katekesi zerbitzuarekin eta gazte zerbitzuarekin batez ere.

- *C.O.F.aren jarduera* (“Familientzako Aholku Etxea” – Centro de Orientación familiar): zentru honetara datozen pertsonekin profesionalen taldeak egiten duen lan guztia.

- **Familiari buruzko norabidea** argitu eta bikoteei eta familiari buruzko **psikoterapia** egin (sendagile, herizain, psikologo, famili norabide argitzaile, abokatu, apaiz).
- **Heziera**:
  - Afektibitate eta sexu-hezierarako lantegiak parrokia eta ikastetxeetan haur, gazte, ezkongai eta gurasoentzat.
  - Afektibitate eta sexu-hezierarako begiraleentzako ikastaroak (hezitzaile, guraso eta katekistei zuzenduak).
  - Famili eskola, parrokia eta ikastetxeetan gurasoei zuzendua.
  - “Emakumea eta harreman pertsonalak” izeneko lantegiak egoera arriskutsuan aurkitzen diren emakumeei zuzenduak (Caritas Miriam eta Etorkinen Pastoralzarekin elkarlanean).

- **Biziaren zerbitzuan**

- Ugalkortasuna erregulatzeko izaerazko metodoen inguruko ikastaroak bikoteentzat.
- Ustekabeko haurdunaldiaren aurrean emakumeari (eta bikoteei) laguntza.
- Raket Proiektua: abortatzearen ondorengo sendaketa.

- *Ezkonduetikiko Pastoraltza parrokiatan: Ezkonlagunen Maitasun Proiektuaren* helburua senar-emazteei harrera ona egin eta horiei lagun egitea da, ezkon-harremanetan hazten joan daitezten eta ezkontzako espiritu-izaeran sakon dezaten. Topaketak eta erretiro-aldiak antolatzen dira, horietan senar-emazteek parte-hartze eragilea dutelarik, fedebilbide jakin baten eta heziera iraunkorraren arabera. Eskatzen duten senar-emazteei bide-laguntza pertsonalizatua egiten zaie.

## ❖ **Helduen Katekumenotzarako E. Z.**

*Ardurduna:* Mikel Aranguren Zubialqui  
943285000 [mikelaranguren@elizagipuzkoa.org](mailto:mikelaranguren@elizagipuzkoa.org)

- **Helduen Katekumenotzarako Elizbarrutiko Zerbitzuak** erantzuna eman nahi die eta lagun egin, adin desberdinekoak diren, eta asmo desberdinek eraginik gure Elizara etorri ohi diren pertsoneri; Bataioa, Sendotza eta Eukaristiako sakramentuak hartu nahi dituztela edota fedea sakondu nahi dutela esanez etorri ohi diren perstonak dira.

- Zerbitzu honen bidez erantzuna eman nahi zaio zenbait erronka pastoralari:

- Gure parrokiatara hurbiltzen diren pertsoneri egokitutako hezibidea eskaintzea.
- Katekumenotzako ibilbidea hasi nahi duten pertsonak onartuko dituen elkarte eskaintzea.
- Bide-laguntza pertsonala eskaini ahal izatea.

## **Ekintzak:**

- Pertsona helduei katekesi-esperientzia eta -hezierabideak eskaintzea, fede heldua izateko sarbidea hastera zuzenduak.
- Topaketak eta erretiro-aldiak antolatzea katekumeno-aldia hasia duten helduentzat.

## **❖ Apostolutza Sekular eta Ebanjelizatze Berrirako Z**

*Ardurduna:* Iciar Santiago Barrios  
943.452.562 [sekularapostolutza@elizagipuzkoa.org](mailto:sekularapostolutza@elizagipuzkoa.org)

## **Misioa:**

- Laikoak animatu, eta laguntza eskaini nahi diegu Elizaren bizitzan parte har dezaten eta horrekin konprometitu daitezen, banaka edo eliza elkarte eta mugimenduetan, espiritu ebanjelikoa munduan present egiteko euren betebeharrak berezia bete dezaten.

-Frantzisko Aita Santuak esan du beharrezkoa eta premiazkoa dela Eliza kanpora irtetea. Horregatik mintzo gara Ebanjelizazio Berriaz, Berri Ona mundu osoan barrena iragartzera eta aldarrikatzera bultzatzen gaituenaz (cf. Mc 16,15); berria jaieran, berria metodoan eta berria adierazpidean. *Evangelii gaudium* erretolika apostolikoa izango dugu beti inspirazio eta motibazio, Elizbarrutiko gure misioa garatzeko.

-Elizbarrutiko zerbitzu honek laikoak sentsibilizatu nahi ditu, eta gogorarazi nahi die premiazkoa, apurtzailea eta benetan profetikoa dela gure ebanjelizatzaile bokazioa; izan ere, maitasunezko, errukizko, Jainkoa goraiatzeko eta beharrean dagoen anaia-arrebarekiko gupidazko ekintza da ebanjelizatzea.

## **Ekintzak:**

### **- Ebanjelizazio Berrirako Seminarioa (SNE)**

Elizaren zerbitzura dagoen pastoraltzaren berritze eta konbertsiorako tresna bat da, aldatutako bizitzak, eraldatutako parrokiak eta Eliza berri bat lortzeko.



### **- Alpha/Kerygma ikastaroak**

Lehen iragarpeneko tresnak dira, hainbat astean egiten diren topaketa informalak. Bizitzaren zentzua eta esanahia aurkitzeko aukera gisa aurkezten da eta ateoentzat, agnostikoentzat, urundu egin diren pertsonentzat eta epelak diren pertsonentzat pentsatuta dago bereziki.

### **- Apostolutza eta partekatze taldeak (Jesusen lekukoak)**

Jainkoarekin topo egin duten eta kristau bizitzan jarraitzaile misiolari gisa hazten jarraitu nahi duten pertsonentzako lekua da. Oso garrantzitsuak dira harrera eta laguntza pertsonala, bai eta apostolutza eta gure ebanjelizazio misioa ere.

### **- Bestelakoak**

Apostolutza sekularreko gure Elizbarrutiko beste mugimendu eta elkarteekiko topaketak, elkar hobeto ezagutzeko eta denok batzen gaituen misioan elkarri laguntzeko.

# **MUGIMENDU, ELKARTE ETA ELIZAKO BESTE ZENBAIT ERREALITATE**

- **Prelaturak: Opus Dei,  
Kastrensea**
- **E. Neokatekumenalak**
- **S. Domingoren Erlijiosa  
Elkartea**
- **Bizian Gora**
- **Gau Gurtza**
- **Gau Gurtza. Emakume S.**
- **Eraberritze Karismatikoa**
- **Espirituarengan Eraberritze  
karismatiko Katolikoa**
- **Kristaudi Ikastaroak**
- **Fokolarren Mugimendua**
- **Schola Cordis Iesu**
- **Otoitz eta Bizitza  
Tailerrak**
- **Adsis**
- **Manos Unidas**
- **Lourdes Andre Mariaren  
Hospitalitatea**
- **Anaidia**
- **Otoitz Apostolutza**
- **ACDP**
- **C.V.X**
- **Kristaudi Ikastaroak**
- **Marianisten anaidia**
- **Mundo Nuevo**
- **JMV**
- **AIN**
- **Gaztetxo Taldea**
- **Loiola Taldea**
- **Emaus Erretiroak**
- **Padre Pío Otoitz Taldea**
- **Cenáculo Otoitz Taldea**

# **SOZIAL ETA MISIO PASTORALTZARAKO GOTZAIN BIKARITZA**

- ❖ **Caritas Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Espetxeratuekiko Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Osasun Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Etorकिन Arreta Pastoralerako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Gai Sozialetarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Misio eta Lankidetzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

## ❖ Caritas Elizbarrutiko Zerbitzua:

*Zuzendaria:* José Ramón Aramendi Mendizabal  
director@caritasgi.org

### Caritas zazpi arlotan antolatuta dago:

#### -Lurralde ekintza

- Lehen Harrerarako Programa  
Gizarte langile bat edo bi artziprestalde bakoitzeko (6 artziprestalde)
- Animazio Komunitarioko Programa  
Bi laguneko talde ibiltaria sei artziprestaldeetarako

#### -Etxerik gabeko pertsonak (EGP)

- *Aterpe Eguneko Zentroa*; gizarte jangela du etxerik gabeko pertsonentzat.
- *Laguntza Eguneko Zentroa*; gizarte jangela du etxerik gabeko pertsonentzat.
- *Aterpe Gaueko Zentroa*. 20 leku daude.
- *Eutsi*. Alkohol kontsumo kronifikatuak dituzten pertsonentzako programa.
- *Hotzaldi*. Gaua pasatzeko zentroa. 47 leku daude.
- Etxerik gabeko pertsonekin kalean esku hartzeko programa.

#### -Familia, emakumea eta haurrak

- *Adore*. Emakumeei laguntzeko programa.
- *Miriam*. Emakumeei arreta osoa emateko programa. Lan-poltsa dauka.
- *Bultzada*. Eskolan jarraipena egiteko eta laguntzeko programa.

#### -Etxebizitza eta egoitza-zentroak

- *Zubia*. Etxebizitza programa. Parrokietatik bidalitako pertsonentzako 15 etxebizitza edo Caritasen hainbat baliabide kudeatzen ditu.
- *Trintxer-Emeki*. Egoitza-zentroa; 23 leku daude gizonentzat eta 6 emakumeentzat.

- **Sorabilla.** Gizarte-bazterkeria egoeran dauden gazteentzako egoitza-zentroa.14 leku daude.
- **Betania.** Gizarte-bazterkeria egoeran dauden eta behar sanitarioak dituzten pertsonentzako harrera-zentroa. 10 leku daude.

### **-Prestakuntza, boluntariotza, intzidentzia eta komunikazioa**

Caritas osatzen dugun pertsonok geure lana egiteko eta hobetzeko behar ditugun tresna eta baliabideak garatzen ditu.

### **-Ekonomia solidarioa**

- **Lamorous.** Hezkuntza-okupazio lantegia.
- Zonaldeko hainbat hezkuntza-okupazio programa (Goierri, Arrasate, Zarautz).
- **Kitzin.** Bidezko merkataritzako saltokia.
- **Nazioarteko lankidetzak.**

### **-Kudeaketa, Administrazioa, giza baliabideak eta zerbitzu juridikoa**

## **Argitaratutako azken memoriako hainbat datu<sup>1</sup>:**

**-23.479 pertsonarentzat izan da onuragarri Caritas Gipuzkoak egindako jarduera<sup>2</sup>**

**-Giza laguntzako eta indarra emateko gure gizarte sarea: 1.021 BOLUNTARIO.**

**-Laguntza ekonomikoa zuzeneko arretan: 3.196.909 €<sup>3</sup>**

Laguntza gehieneko xedea: etxebizitza, biziraupena eta enplegua.

**- Guztizko jarduera-bolumena: 11.168.932 €**

**%82 funts propioak.** %18 funts publikoak (Gipuzkoako Foru Aldundia)

---

<sup>1</sup> 2017ko memoriako datuak.

<sup>2</sup> Onuraren bat izan duten pertsonak CARITAS GIPUZKOAREN laguntzak jaso dituzten etxeetako pertsona guztiak dira.

<sup>3</sup> %100 Caritasen baliabide propioak.

## **Nolako boluntario-lana egiten du edo behar du**

Caritas Gipuzkoako boluntarioek laguntza eta babes lanak egiten dituzte (lan logistikoa, teknikoa, hezitzailea eta abar) programa bakoitzean laguntzen ditugun pertsonentzat.

Pertsona guztiek egin ditzakete boluntario-lanak, baldin eta Caritasen gizarte ekintza eredia onartzen eta errespetatzen badute eta programa bakoitzak artatu beharreko pertsonak sustatzeko dituen helburuekin bat egiten badute.

## **Nola hasi boluntario-lanetan**

Gure web orriaren bitartez, posta elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurre harremanetan jarrita hasten dira boluntario-lanetan, Caritas ezagutarazteko informazio-hitzaldi baterako gonbidapena jaso ondoren: gure ikuspegia eta misioa, eta zein programatan kolabora dezaketen. Informazio-hitzaldia ezinbestekoa da kolaboratu nahi duten pertsonak gure lan egiteko modua eta non kolabora dezaketen jakiteko. Informazio-hitzaldiaren ondoren, programa bakoitzaren erreferentearekin harremanetan jartzen da pertsona, handik boluntario-lana gehiago zehazteko.

## **❖ Espetxeratuekiko Pastoraltzarako E. Z.**

*Arduraduna:* José Luis Gorrochategui Bilbatua  
943285000 [espetxepastoraltza@elizagipuzkoa.org](mailto:espetxepastoraltza@elizagipuzkoa.org)

**Helburua:** Espetxeratuekiko Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzuak presoak, zigortuak eta euren familiak artatzen ditu. Gaur egun, 78 boluntario ditu Pastoraltzak.

**Ekintzak:** (Azkenengo urteko ekintzak hartzen ditugu adibidetzat)

### **-Hauek egin dira prebentzio arloan:**

- Bi sentsibilizazio kanpaina: Mesedetakoa eta Gabonetakoa. Azken horren ondorioz, 220 pakete-opari entregatu zaizkie espetxean dauden pertsoneri.

- Boluntarioentzako lau prestakuntza topaketa: hiru espetxe zuzenbideari buruz eta BIDEK topaketa, PSCren esparruan.
- Elizbarrutiko Biltzarra ekainean, prestakuntza izaera duena.
- Elizbarrutiko bi kontseilu (artziprestaldeetako arduradunekin)
- Elizbarrutiko hamabi batzorde (arduradunak, kapilauak eta bi boluntariok hartzen dute parte)
- Hilean bilera bat artziprestaldeka.
- Elizbarruti arteko bi topaketa, nazioko espetxe pastoraltzako ipar eremuan.
- Ordezkeri eta kapilauen arteko estatu mailako hiru egineko topaketa bat Madrilen.

### **-Espetxean:**

- Erljio arloan, 56 eukaristia ospatu dira, eta 60/7/0 espetxeratu inguruk eta hainbat boluntariok hartu dute parte; adiskidetze sakramentuaren ospakizun komunitario bat, gurutze-bide bat, bataio bat, zortzi konfirmazio eta hiru “tailer”: sakramentuen hartzea, igandeko eukaristiaren prestaketa eta biblia tailerra (25 saio). Bi landa-lan ere egin dira udan, eta 16 gaztek hartu dute parte. Lan horietan, 14 boluntariok hartu dute parte bereziki.
- Gizarte arloan, espetxe barruan eta espetxetik kanpo, 240 laguntza-ekintza egin dira, 77 pertsonari lagundu zaie. Hamar kolaborazio egin dira Martuteneko, zonaldeetako Caritaseko eta gizarte larrialdietarako udal zerbitzuko gizarte langileekin. Programatutako irteera bat egin da, Xabierraldira, eta pintura, pilota eta kanpoko gazteekin futboleko partidak antolatzekeo tailerrak egin dira udaberrian.
- Pastoraltzak espetxeko 221 pertsonari eman die laguntza ekonomikoa. Espetxean dauden pertsonentzako arropategi bat ere badu Pastoraltzak. Ikasturte honetan, 192 poltsa arropa eman dira 165 pertsonarentzat.
- Arlo juridikoan, espetxeko pertsona ugari artatu dira; euren kontsultei erantzun eta bitartekaritza lana egin da euren abokatuekin.

**Boluntario** modura sartzen da bertara edo zerbitzua eskatuta, parrokiekin, kapilauarekin edo arduradunarekin harremanetan jarrita.

## ❖ Osasun Pastoraltzarako E. Z.

*Arduraduna:* José M<sup>a</sup> Landa Etxeberria  
943285000 osasun@elizagipuzkoa.org

-Osasun Pastoraltza Eliza bizitzearen ondorio bezala ulertzen da, hau da, bizitzako egoera desberdinetan diren pertsona guztiez osatua den elkartearen bizitzaren adierazpen bezala.

Eserientzia honetan oinarriturik, Osasun Pastoraltzaren helburua elkartearen beraren bizia sustatzea dela diogu, eta, arrazoi desberdinak direla medio, sufritzen daudenen zerbitzura egotea.

### **Hauek dira lortu nahi diren oinarrizko helburuak:**

- Kristau-esperientziak duen alderdi osasun-emailea berreskuratzea; fede-esperientzia izatea, alegia, osasun osoaren eta osagarriaren kultura ezartzeko.
- Nolanahiko gaitxotasuna duten pertsoneri gaixotasuna eta heriotza era osasuntsuan bizitzen laguntzea.
- Gaixo, ahalmen urriko, etab.eko pertsonak gure elkarteko beste edozein kidek dituen zerbitzu pastoral berak izan ditzaten arduratzea.
- Elizbarrutiko beste Ordezkaritzekiko harremanak sortzea, elkarrekiko batasun eta elkarlanerako.

### **Jarduera-eremuak**

#### **- Parrokiak/Artziprestaldeak.**

Gaur egun 600 inguru dira parrokiatan nahiz zonaldeetan Osasun Pastoraltzan ari diren pertsonak. Horiek sei artziprestaldeetako 14 zonaldeetan ordezkatuak daude.



- Bada artziprestalde eta zonaldeetako Arduradun Batzordea, ekintzen berri eman, ekintza berriak sortu eta aztertzeko elizbarruti mailan biltzen garena.
- Talde hauen jarduera era desberdinekoa da:
  - Gaixoak eta hauen familiak beren etxeetan zaintzea,
  - Zentro Gerontologiko eta soziosanitarioetan, Psikiatrikoetan eta Egunerako Zentroetan lagun egitea,
  - otoitzerako topaketak antolatzea,
  - Gaixoaren Pazkoa eta beste egun esanguratsuak antolatzea
  - taldeentzat hezierarako topaketak eta hileroko bilerak... antolatzea,
  - Gizarte Zerbitzuetatik datozen era askotako eskariei erantzutea,
  - ospitaleetako zerbitzu erlijiosoekin sarean eta bestela harremanak izatea.

### **-Ospitaleak**

- Laguntza Espiritual eta Erlijiosorako Zerbitzuaren bidez, Elizak eta Ospitale Erakundeak bermatu egiten dute ospitalean dauden gaixoen, horien senitarteko eta zaitzaileen arreta erlijiosorako eskubidea, ospitaleko laguntza guztien arteko eragile osasungarri bihurtuz.

### **Ekintzak:**

- Eskatu egin behar den zerbitzua da
- Espiritu-alorreko laguntza erlijiosoa ematea:
  - Ospitalean dauden gaixoei, horien senitartekoei eta Osasun-langileriari giza eta, baina.
  - Ospitaleko beste zerbitzu bat (Gizarte Zerbitzuak), baina elizbarrutikoa
    - Sarean osasun-pastoraltzako kideekin harremanak izatea.
    - Etika-alorreko aholku-ematea.
    - Otoitza.
    - Sakramentu-ospakizunak.
    - Sarean egiten da lan hau.

- Oso adintsua den borondatezkotza daukagu; Osasun-alorrean besteeekin batean lan egin nahi duen nornahi onartua izan ohi da eta behar duen laguntza eta prestaera eman ohi zaio.

## **Osasun Pastoraltzaren inguruko taldeak/elkartasunak**

-Osasun Pastoraltzaren zeregina, arlo honen inguruko helburuak eta jarduera dituzten era desberdineko taldeak indartzea da, eta, zenbait kasutan, horietan sartzea.

- ***Ospitaleetako Arreta espiritual eta erlijiosorako taldeetako kideak.***

- Hileroko heziera-bilerak koordinatu, lekua eratu eta elkarri laguntzea.

- Kapilauen eta Pertsona Egoki laikoen Euskal Herriko elizbarruti arteko topaketa antolatu eta bertan parte hartzea.

- Elizbarrutiko eta nazioko Jardunaldietan parte hartzera eragitea.

- ***Prosac:*** ospitale-zentroetako osasun-langileria laikoarekin osatua.

- Hileroko bilerak koordinatzea, bizi-azterketan arreta berezia jarritz.

- Elizbarrutiko eta nazioko Jardunaldietan parte hartzera eragitea.

- ***Anaidia-Frater:*** Gipuzkoako gaixoen eta ahalmen urriko pertsonen Anaidia.

- Anaidiko kideek parroki elkartearen bizitzan parte har dezaten eragitea.

- Frater Anaidiko Elizbarrutiko Batzordean kide (nahiz kontseilari) bezala parte hartzea.

- Frater Anaidiko kideen hezieran parte hartzea.

- Otoitz- eta eukaristi ospakizunak egitea.

- Osasun Pastoraltzako nahiz Frater Anaidiko elizbarrutiko eta nazioko elkarketetan parte hartzea.

- ***Buruko osasuna:*** buruko gaixotasuna dutenekiko eta hauen ingurukoekiko sentibera diren pertsonekin osatutako taldea eratzea.

Aita Meni eta San Juan de Dios psikiatrikoekin harremanak dituzte

- ***Eliz elkarteak eta hiritarrek orokorrean:***

-Gaixoaren jardunaldia ospatu eta parte hartzera eragin parrokiei eta erlijioso-erlijiosen elkartei.

-Gaixoaren aldeko Munduko Otoitz Jardunaldia prestatu (otsailaren 11).

-Pazkoaren ospakizunerako Sentiberatze Astea.

-Elizbarrutiko Otoitz Topaketa.

-Gaixoaren Pazkoaren ospakizunerako materialak prestatu (seigarren Pazko Igandea).

-Osasun Pastoraltzaren Elizbarrutiko Batzarra.

-Kartelak, estapak, Eukaristiarako liturgi lagungarriak, otoitza... prestatu.

-Taldeen hezierarako materialak prestatu.

-Asteburuko erretiro-topaketa Arantzazun.

-Elizbarrutiko beste ordezkaritza eta talde edota fundazioekiko topaketak eta elkarlana.

-Osasun Pastoraltzako Zerbitzuen berri ematea elizako nahiz zibil esparru posible guztietan.

- ***Harremanak ditugun beste taldeak***

-Sozio-karitatzekeo Pastoraltza: Caritas, Espetxeratuekiko eta Osasun Pastoraltza

-SIPS: Euskal Herriko: Bilbao, Gasteiz eta Donostiako Pastoral zerbitzuekiko topaketa eta elkarlana.

-Espainiako Gotzainen Batzarreko Osasun Pastoraltzarako Talde Nazionaleko kide gara.

-Anaidiaren Talde Nazionaleko kide gara.

-Hirugarren adinekoekin eta beste esparruetan lanean ari diren Elizbarrutiko Zerbitzu eta bestelako Taldeekiko elkarlana.

## **-Gure Ordezkaritzatik honetan saiatzen gara:**

- Hurbiltasunez lan egiten, artziprestalde, zonalde eta parrokia bakoitzeko taldeen eta topaketen ardura jarraikia izanez.
- Horietatik sortzen diren proposamenak bideratzen.
- Taldeei Elizbarrutiko topaketetan parte hartzera eragiten.
- Taldekideei heziera ematen (gure Zerbitzuak antolatutako ikastaroak nahiz taldeek eskatutakoak).
- Beti prest egoten egiten diguten edozein topaketarako.

## **❖ Etorkinen Arreta Pastoralerako Elizbarrutiko Zerbitzua**

*Arduraduna:* Leire Atxega Pagola

635 733 984 [Pastoralinmigrantes@elizagipuzkoa.org](mailto:Pastoralinmigrantes@elizagipuzkoa.org)

### **Elizbarruti esparrua:**

Erantzun hobe eman nahi diegu immigrazioaren munduarekin lotutako kezka pastoralei.

Jainkoaren hitzarekiko konfiantza da kristau espiritualitatearen oinarritzko osagaietako bat. Etorkin kristauei harrera egitea eta laguntzea gure kristau komunitateetan erabat integratzea lortu arte.

### **Helburua**

- Etorkinekiko arreta pastoralala sustatzea Donostiako Elizbarrutian.
- Anaia-arreba etorkinen bizitza espirituala zaintzea.
- Elizbarrutiko eta gizarte inguruneko gure errealitatearen inguruan sensibilizatzea, desberdintasunaren aldeko errespetua eta migrazioaren aurrean elkartasunezko jarrera sustatuta.

### **Hau eskaintzen du Etorkinen Arreta Pastoralerako Zerbitzuak:**

Elizan inor ez da atzerritar, eta Eliza ere ez da inorentzat arrotz. Elizak euren herrialdetik kanpo bizitzera behartuta dauden gizaki guztiak onartzen ditu, “etorkinak” izan edo ez, agiririk eduki edo ez; tokiko eta

unibertsoko komunitate bereko anaia-arreba gisa aitortzen eta artatzen ditu. Elizbarrutiko pastoraltza arloak etorkinen bizitza espiritualala zaindu eta elikatzea bilatzen du, parroketatik lagunduta, fedea bizitzeko euren kezkei erantzunda, haiekin Jainkoaren hitzaren inguruan familiarizatuta. Hala, gure komunitateetako parte dira etorkinak eta animazio pastoralaren dibertsitateari esker, aberastu ere egiten dute komunitatea.

### **Hau eskaintzen dugu eta honen irrikan gaude:**

Etorkinen arreta pastoralerako zerbitzua indartu, animatu eta sensibilizatu artziprestalde eta pastoraltza eremu bakoitzean, apaizekin, pastoraltza agenteekin, eta arlo horretan laguntzeko eta sakontzeko prest dauden pertsonekin harremanetan jarrita. Etorkinek biltzeko, bilerak eta ospakizunak egiteko lekuak edo lokalak edukitzea Gipuzkoako pastoraltza eremuetan, etorkinei behar bezalako harrera egiteko, entzuteko eta lotura komunitarioak sortzeko.

### **Etorkinentzako eskaintza pastoral**

- Fededunen irakurketak, -prestakuntza saioak, -erretiro espiritualak,
- elkar bizitzaldiak, -eukaristiak, -hileroko ibilbideak,
- Lourdesera erromesaldia,
- Caritasekin lankidetzak estua eta parte-hartzea:  
Mirian proiektua, Bidetik, Topaki,
- Zinema Espiritualaren Astea, Bakearen Astea,
- Pertsonen Salerosketaren Aurkako Otoitz egiteko Mundu Jardunaldia,
- Migratzaile eta Errefuxiatuen Mundu Jardunaldia,
- kontzertuak eta kultur ekitaldiak,
- Isiltasun Zirkulua (hileroko)

## **❖ Gai Sozialetarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

### **Helburua:**

- Elizaren Doktrina Soziala gizarteratzea, bizi dugun egoera kontuan izanik. Une honetan, hamabi pertsona inguru etorri ohi dira hileroko bileretara; horietako batzuk sozial sen nabarmena duten kristau-

lagunarte desberdinen ordezkari dira. Bilerak Gentza Etxean egin ohi dira, gure Gotzaina buru dela.

### **Jarduera:**

- Gaurkotasuneko gai desberdinak aztertzen dira, Doktrina Sozial Katolikoaren ikuspegitik argitzen ahaleginduz; Idazkaritza Sozialak zenbait ekimen abiatzen du, gogoeta hauek gizartearen erdira eramateko asmoz; horien artean, nabarmenena Ricardo Alberdi Astea eratzea da, gaurkotasuna duen gai bat aukeratuz urtero: 2018an, Erdialdeko Ekialdearen krisia izan zen gaia; 2017an, jaiotza-kopuruaren krisia; 2016an, Laudato Sí entziklika eta erronka ekologikoa...

## **❖ Misio eta Lankidetzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

*Arduraduna:* Koldo Muro Fernández

kmuro@misioak.eus

### **Helburu Nagusia**

Gure elizbarrutiko misio eta solidaritza dimentsioa indartu, errealitatearen azterketatik abiatuta, gure begiak Jesusen Ebanjelioan ditugularik, misio eta elkartasun taldeekin bat eginik.

### **Helburu Espezifikoak**

- Elizbarrutiko misiolarietara komunikazioa, harrera eta lankidetzaren indartu
- Misio eta Nazioarteko lankidetzarako bokazioak suspertu (apaizak, laikoak)
- Elizbarrutiko misio eta lankidetzaren taldeekin elkarlana eta presentzia indartu
- Lankidetzaren eta elkartasunerako baliabide zehatzak eskaini, parrokiak eta elizbarruti mailan (katekesian, gazte pastoraltzan, ikastetxeetan).  
Baliabideak: proiektuak, kanpainak, ekintzak

Misio eta solidaritza dimentsioa zeharkako dimentsioa dela ulertzen dugu. Horregatik heziketa arloaren eginkizuna da zalantzarik gabe.

## **Gure Eskaintza**

- Kanpainak (DOMUND, Haur Misiolarien Eguna, Elizbarrutietako Misioak)
- Haur Misiolarien Egunaren inguruko lehiaketak
- Materialak eta Misio / lankidetzako testigantzak
- “Los Ríos” aldizkaria
- Hegoaldeko Ahotsak: Afrika eta Amerikako testigantzak eskaintzen ditugu Elizbarrutietako Misioen kanpaina prestatzeko

## **Formazioa**

- Hegoaldeko lurraldeetan esperientziak eta horretarako prestakuntza
- Esperientzia bikaina da horren ondoren inguruan sentsibilizatzeko

## **Zer egin dezakezue**

- Kanpainak landu
- “Los Ríos” aldizkariaren harpidetza
- Materialak prestatzen lagundu
- Guri hainbat tokitan antolatzen diren ekintzak jakinarazi – Komunikazioa
- Zuetako baten batek Hegoaldeko esperientzietan parte hartu
- Misio Susperketarako Batzordean parte hartu

## **Zerbitzuan boluntarioak ere behar ditugu:**

- Kanpainak prestatzeko
- Proiektuen batzorderako
- Ekonomian
- Misio Susperketako hainbat ekintzatarako

# **LITURGIA ETA ESPIRITUALITATE PASTORALTZARAKO GOTZAIN BIKARITZA**

- ❖ **Liturgia eta Sakramentu Pastoraltzarako  
Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Liturgi liburuen itzulpen eta argitalpenen  
Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Eliz Kantuetarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Ekumenismorako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Erromesaldietarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Jainkoaren Hitzaren Fedezko Irakurketarako  
Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **AdOra. Etengabeko Gurtza**

Liturgia eta espiritualitate pastoraltzarako gotzain bikaritzaren fedearen ospakizunaren zerbitzura dagoen Gotzaindegiko saila da. Elizbarruti osoko parrokia eta elizkizun-lekuetako arduradunei eta kristau-elkarteei liturgia eta espiritualitate gaietako heziera ematea da bere zeregina, ospakizunetarako liburuak eta lagungarriak prestatzea, elizak eraberritzeko liturgi argibideak eta aholkuak ematea eta era askotako laguntza pastoral eskaintzea.

Unai Manterola Albizu da bikarioa eta hainbat zerbitzutan banatua dago bikaritzan



## ❖ **Liturgia eta Sakramentu Pastoraltzarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

*Arduraduna: Unai Manterola Albizu,  
unaimanterola@elizagipuzkoa.org*

- Kontzilioak esan zuen bezala, liturgiak, Elizaren bizitzaren gailurra eta kristau espiritualitatearen iturburu nagusia izan behar du. Horrela izan dadin beharrezkoa da, Liturgi heziera eskaintzea, Igandeko ospakizuna zaintzea eta suspertzea lagungarriak prestatuz, otoitz eta ospakizun berezietarako materialak eskura jartzea, bai parrokien eta bai gotzaindegiko beste zerbitzuen eskabideei jarraituz.
  - Zerbitzu honek prestatzen du MINTZO ETA KANTU aldizkaria eta zerbitzu ezberdinek bere jardunaldietan eskaintzen dituzten lagungarriak.
  - Parrokiek ospakizunen baterako egindako eskabideei ere erantzuten saiatzen da zerbitzu hau.
  - Eta Gotzaina batzar-buru dela egiten diren ospakizunen ardurua nagusia du.
  - Meza-liburu berria argitaratzen denerako lagungarri osagarriak prestatzeari emana dago orain.
- Sail hau arduratzen da komunikabideetan eskaintzen diren Eukaristiez ere: ETBko Meza Santua (eta Egi Bidean programa) eta Euskadi Irratiko Meza Santua.

## ❖ **Liturgi liburuen itzulpen eta argitalpenen Elizbarrutiko Zerbitzua**

*Arduraduna: Eustasio Etxezarreta Zelaia  
eustasioe@elizagipuzkoa.org*

Elizbarrutiko parrokia eta elizkizun-lekuetan ospakizunak egiteko behar diren liturgi liburu ofizialak euskarara itzultzea eta argitaratzea, eta beste zenbait lagungarri ere prestatzea da zerbitzu honen eginkizuna.

Une honetan euskarazko Meza-liburu berriaren argitalpena burutzen ari da, 2019an argitaratzeko; Irakurgaien liburuaren maketazioari ekingo dio laster, jarraian argitaratzeko eta apaizik gabeko ospakizunen liburu berrituak nahiz sakramentueterako ohikune-liburu berriak prestatzen ari da. Lan hauek Euskal Herriko beste elizbarrutietako liturgia zerbitzuekin elkarlanean egiten dira.

## ❖ **Eliz Kantueterako Elizbarrutiko Zerbitzua**

*Arduraduna: Eustasio Etxezarreta Zelaia*  
*eustasioe@elizagipuzkoa.org*

-Liturgi ospakizunak duintasunez egiteko behar diren euskal kantu berriak eginarazi eta argitaratzea, kristau-elkarteek, eliz abesbatzek eta erlijioso-erlijiosa elkarteek eskura izan ditzaten. Igande eta festaburueterako Salmo eta Aleluien liburuak prestatua du Irakurgaien liburu berriarekin batera argitaratzeko. Eta Mezaren eguneroko doinuak liburuxka berria prestatzen ari da. Esku artean du zerbitzu honek, Haurrekiko Mezetan erabiltzeko kantu sorta bat argitaratzea ere.

## ❖ **Ekumenismorako Elizbarrutiko Zerbitzua**

*Arduraduna: Unai Manterola Albizu*  
*unaimanterola@elizagipuzkoa.org*

Kristau guztien batasunaren alde otoitz egitea da zerbitzu honek bultzatzen duen eginkizun nagusia. Horretarako elizbarrutiko lurraldean finkatuta dauden beste kristau elizak ezagutzen eta harremana izaten saiatzen gara. Ekialdeko kristau katolikoekin (Madrilgo Artzapezpikua bere ordinariora dutenak) eta kristau ortodoxoekin harremana estuagoa da, izan ere, Donostiako Elizbarrutiak hauen esku utziak ditu hainbat eraikin bere kultura ospatu ahal izan dezaten

## ❖ **Erromesaldietarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

*Arduraduna:* Pedro Laskurain  
peregrinaciones@elizagipuzkoa.org

### **Helburua:**

- Antolatzen diren jardueren helburua ebanjelizazioaren eginkizuna bultzatzea da, erromesaldietan emandako esperientziaz baliatuz, kristau bizitza berritzeko leku sagaratuak eskeintzen duten aukera aprobetxatzen da.
- Erromesaldien helburua bizitza espirituala berritu eta familia bat sortzeko, hau da elizaren familia osatzeko gonbidapena eskeintzea da.

### **Ekintzak:**

- Urtean zehar zenbait erromesaldi antolatzen dira:
  - Lourdesera, Gaixoen erromesaldian
  - Xabiererra erromesaldia, Xabieraldian partehartuz
  - Lur Santura
  - Fatima
  - Itziarko gau ibilaldia
  - San Inazio bidetik Loiolara erromesaldia
  - Arantzazuko Martxa
- “Lur Santu” erretiroak, leku sagaratuetakoko esperientzian sakonduz.

## ❖ **Jainkoaren Hitzaren Fedezko Irakurketarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

*Arduraduna:* Unai Manterola Albizu  
unaimanterola@elizagipuzkoa.org

-Maria Jesus Amundarain Probidentziako erlijiosaren gidaritzapean, hamalau urtez sortu eta garatu dira biblia-irakurketa taldeak gure elizbarrutian. Arduraduna jubilatuta bikarioaren esku geratua dago

zerbitzu hau. Orain arteko taldeek eska dezaketen laguntza emateko prest eta talde berriren bat osatzeko bidelagun izateko eginkizunarekin, parrokien zerbitzura gaude.

## ❖ AdOra. Etengabeko Gurtza

*Arduraduna:* José María Echevarría  
616157644 donostiadora@gmail.com

- 2012ko otsailaren 22an hasi zen Adorazio betierekoa Donostian. Hasieran, hausterre asteazkenean izan ezik, egunez adoratzea bakarrik pentsatzen genuen, baina Jaunak gaueko txandetan izena eman zuten pertsona askoren bihotza astindu zuen, eta egun hartatik aurrera, etengabe gurtu da Jauna San Martingo aldarean.
- Gaur egun, 400 pertsona inguru gaude Adorazio Betierekoan izena emanda. Adina edo gaixotasuna dela-eta gure adoratzaile batzuek euren etxetik egiten dute euren txanda; adorazio atxikia deitzen diogu.
- Adoratzaile gehiago behar ditugu; izan ere, pertsona bakarra dago 12 txandatan, gutxi gorabehera, eta hiru txandatan ez dago adoratzailerik. Izena emanda hartzen den konpromisoa San Martin parrokian astean ordu jakin batean adoratzea da. Adibidez, ostegunero 12:00etan. Pertsona batzuek ordezkapenak egiteko ematen dute izena; gaixotasunen bat, oporrak eta abar direla-eta beste adoratzaile batzuk ordezkatzeko.
- Adoratzaile guztiok jakitun gara asteko ordu santu horietan asko jasotzen dugula. Izena eman nahi baduzu, deitu 616 157 644 telefonora edo idatzi [donostiadora@gmail.com](mailto:donostiadora@gmail.com) helbide elektronikora, zure datuak eta zein ordutan adoratu nahi duzun adieraziz.

# **BIKARITZA NAGUSIA**

- ❖ **Kleroaren arretarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Elizbarrutiko Apaizgaitegi Nagusia**
- ❖ **Heziketarako Antolabideak:**
  - **Pío XII.a Erlijio Zientzietarako Goi Ikastegia**
  - **«Hezkide Eskola»**
- ❖ **«Idatz» Elizbarrutiko Argitaldaria eta Liburudenda**
- ❖ **Servicio Historia eta Arte Ondarearen Elizbarrutiko Zerbitzua:**
  - **Elizaren Liburutegi eta Artxiboen Elizbarrutiko Zerbitzua**
  - **Elizaren Arte Ondarearen Elizbarrutiko Zerbitzua**
  - **Elizbarrutiko Museoa**
- ❖ **Ekonomia eta Administrazioarako Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Elizaren Ondare eta Obren Elizbarrutiko Zerbitzua**
- ❖ **Hedabideetarako Elizbarrutiko Zerbitzua**

## ❖ Kleroaren arretarako Elizbarrutiko Zerbitzua

*Arduraduna:* Juan M<sup>a</sup> Olaechea Garaicoechea  
bikarionagusia@elizagipuzkoa.org

- Gaur egun Donostiako Elizbarrutiak 216 apaiz sekular ditu, horietatik 206 Gipuzkoan bizi dira, geratzen diren 10 beste elizbarrutietan. 216 horietatik 129, adinez, jubilatuta dauden edo egon daitezkeenak dira, kontuan izanik apaizak 75 urteekin jubilatzen direla. Beraz, 87 apaiz ditu gaur Elizbarrutiak jubilatzeke adinera iritsi gabe. Apaizetarako bokazioaren alde lan egitea eskatzen digu egoera honek.
- Apaiz Bikaritzaren eginkizuna apaiz guzti hauetaz arduratzea da. Apaiz bakoitzaren egoera nolakoa den jakiten saiatu eta zer nolako laguntza behar duen aztertuz.
- **Hiru motatako laguntza eskaintzen du Bikaritzak:**
  - **Giza laguntza:** Bikaritzak honi dagokio, apaiz bakoitzak etxe bizitza egoki bat izan dezan arduratzea, tarteka osasun azterketa egiteko aukera luzatzea, bizitzeko behar den soldata eguneratzea. Jubilatuentzat bi egoitza ditu Elizbarrutiak, Donostian eta Irunen, bien artean 51 egoiliar ditugu gaur egun.
  - **Heziketa iraungorra:**  
Gaur egun bizi dugun erabateko giro aldaketa honek inoiz baino premiazkoago egiten du berritu eta gaurkotu beharra, erabat lehenean gelditu ez dadin. Elizbarrutiak urteoro eskaintzen die apaiz guztiei jardunaldi batzuen bidez, gai batzuk aztertu eta gaurkotzen joan ahal izateko aukera.
  - **Espiritu-bizitza:** Apaiz eginkizuna egoki bete ahal izateko nahi eta nahiezkoa da barne bizitza lantzea. Elizbarruti mailan, urteoro antolatzen dira aste beteko Gogo-ihardunak, urtean hiru erretiro, bat Loiolan, bestea Seminarioan eta bestea Arantzazun. Laguntzaileak lagundua nola izan behar duen gogoeta eskaintzen zaie urteoro Euskal herriko lau Elizbarrutietako apaizei Leiren.

Horrezaz gain Artziprestalde bakoitzean hilero erretiro eguna antola dezaten saiatzeko eskatzen zaie Artzipresteei Bikaritzza honetatik. Apaiz gazteak hilero izaten dute gotzainarekin erretiro konbibentzi eguna

-Azken urte hauetan arrakasta handiagoa izaten ari den “Krisma meza” deitzen zaie apaiz guztiei.

-Ordenazioaren Zilarrezko, Urrezko eta Diamantezko ospakizuna ere hemen kokatzen da.

## ❖ **Elizbarrutiko Apaizgaitegi Nagusia**

*Errektorea:* Jon Molina Bengoa

Tel: 943 316500 [jon.molina50@gmail.com](mailto:jon.molina50@gmail.com)

Heziera-taldea hiru presbiterok osatzen dute:

- Errektore: Jon Molina Bengoa
- Hezitzaile/Errektoreordeko: Paulo Ormazabal Albistur
- Espiritu-gidatzaile: Joan Anaya Hidalgo

Apaizgaiak CSET zentruan egiten dituzte ikasketak, Iruñako San Mikel Goiaingerua Kontzilioko Seminarioari atxikia dagoen ikastetxean. Bestalde, astelehenetik ostiralera, heziera-arduradun den apaizarekin eta aita espiritu-gidatzailearekin Iruñan bizi dira apaizgaiak.

Asteburuan, Donostiara itzultzen dira apaizgaiak; bakoitzak izendatua du parrokia bat, non heziera pastoralara osatzen duen. Heziera pastoralerako parrokiak, apaizgai bakoitzaren heziera-beharra kontuan izanik izendatzen dira.

Elizbarrutiko Apaizgaitegiari laguntzeko modurik onena apaizgaien alde eta beste bokazioak sor daitezen otoitz egitea da; eta gu bizi garen ingurumen jakinetan bokazioei buruzko kezka bizia izatea.

## ❖ Heziketarako Antolabideak

### **PÍO XII.A ERLIJIO ZIENTZIETARAKO GOI IKASTEGIA**

***Arduraduna*** : Mikel Iraundegui

943 212499 [pio12idazkarai@elizagipuzkoa.org](mailto:pio12idazkarai@elizagipuzkoa.org)

- Erljio Zientzietarako Goi Ikastegiaren funtzio nagusia da Erljio Zientzietako gradu eta master ikastaroak eskaintzea. Bi unibertsitate titulu ofizial Gasteizko Teologia Fakultatearekiko loturari esker. Erljio klaseak emateko titulua eskuratzeko aukera ere eskaintze da (DECA).

- Pastoralta arloan, Teologia Institutuarekin eta Pastoralzarekin batera hainbat topaketa eta ikastaro eskaintzen ditugu:

- Misio Ordezkaritzarekin, Misioak eta Kooperazioa ikastaroa, seminarioan;
- larunbatetako elkarrizketa bidezko ikastaroa, 8 guztira,
- asteazken goizean asteazken teologikoen ikastaroa
- *Justicia, Hacemos lo que debemos?* liburuari buruzko foruma.
- Aurrerantzean, eremuetan eman ahal izateko ikastaroak eskainiko ditugu.

### **«HEZKIDE ESKOLA»**

***Zuzendaria:*** Raquel Álvarez Canal

[hezkide@hezkide.org](mailto:hezkide@hezkide.org)

Hezkide Eskola, 1977. urtean sorturiko Donostiako Elizbarrutiko zerbitzua da. Bere sorrera astialdi mundutik izan zen arren begirale eta zuzendari ikastaroak emanez, urteak pasa ahala, behar berrietara egokitu da, Astialdiaz gain, Susperketa Soziokulturala eta Boluntariotza lantzen dituelarik egun.



## ❖ **Idatz Elizbarrutiko Argitaldaria eta Liburudenda**

943465326 idatz@elizagipuzkoa.org

Elizbarrutiak, liburu erlijosoak saltzeko Idatz liburu denda ez ezik, Idatz argitaletxea ere zuzentzen du.

## ❖ **Historia eta Arte Ondarearen E. Z.**

### **ELIZAREN LIBURUTEGI ETA ARTXIBOEN ELIZBARRUTIKO ZERBITZUA**

*Zuzendaria:* José Ángel Garro Muxika

✉ zuzen@mendezmende.org

-Arxibategi Historikoa eta Donostiako Elizbarrutiko Liburutegia kanonikoki desberdintutako bi erakunde dira, baina funtzionalki eta organikoki Elizbarrutiko Zerbitzu bakar baten mende daude, Bikaritzza Nagusiaren agindupean. Arxibategi Historikoan, Gipuzkoan Gotzaindegiaren jurisdikziopean dauden agente eta erakunde guztien dokumentu ondare historiko itzela biltzen, gordetzen eta zabaltzen dugu; liburutegian, beste horrenbeste egiten dugu ondare bibliografikoarekin.

-Kultur ondare hori kontu handiz katalogatzen da, nazioarteko estandarren arabera, eta horren ondoren, egunez egun gure instalazioetara joaten diren erabiltzaile “presentzialen” eskura jartzen da, bai eta Arxibategitik eta Liburutegitik kanpo gure baliabideak eskatzen dituzten erabiltzaile “birtualen” esku ere, gero eta gehiago baitira.

-Beraz, lan itzela egiten da arretaz eta isil-isilik. Liburua edo agiria jasotzen dugunetik eskaintzeko moduan eduki arte, denbora eta langileak eskatzen dituen prozesu luze bat bete behar dugu. Ditugun baliabideak ikusita -eskasak beti-, bokaziozko boluntarioak hartzeko prest gaude, lan eder, emankor eta liluragarri horretan lagundu nahi dutenak; alegia, Elizak, Gipuzkoako gure komunitate katoliko maiteak, pilatutako memoria eta ezagutza jendearen zerbitzura jarri nahi dutenak.

## **ELIZAREN ARTE ONDAREAREN ELIZBARRUTIKO ZERBITZUA**

*Arduraduna:* José Ignacio Romero  
[patrimonio@elizagipuzkoa.org](mailto:patrimonio@elizagipuzkoa.org)

Ondare Historiko-Artistikoaren Ordezkaritza elizbarrutiko erakundea da; erakunde honen zeregina orokorrean, Elizak bere fedea adierazteko erabili ohi duen ondare sakratua aberastu eta ondare honi zentzu erlijioso, pastoral eta elkartekoa ematea da. Ondare hau arte-lanek osatzen dute eta beronen kudeaketa elizbarrutiaren araudiari jarraituz zuzendu behar da, eta gainera Herri Administrazioaren araudia kontuan izanez. Ordezkaritza honen zeregin nagusiak hauek dira:

- Kristau-elkartearen sentiberatasuna garatzen ahalegintzea, Elizaren Ondare kulturalak duen balio historiko, artistiko eta ebanjelizatzaileari dagokionean.
- Elizbarrutiaren ondare historiko-artistikoaren zainketa (inbentarioa, segurtasuna eta kontserbazioa), ikerketa, hedatze eta hazkunderaz arduratzea.
- Ondare hau ikertu eta hedatzeaz arduratzea, betiere beronen eragin ebanjelizatzaileari lehentasuna emanez.
- Dagozkien harremanak izatea eremu bereko herri-erakundeekin.
- Elizbarrutiko Ondare Historiko-Artistikoaren gaur egungo ordezkararen eskumenak hauek dira:
  - Bikario Nagusiarekin eta eraikin-lanetarako Batzordearekin koordinaturik, aholkuak eman, baimendu eta begirale izatea eliz eraikin historiko-artistikoen mantentze-, eraberritze- eta handiagotze-lanetarako.
  - Elizako ondasun higigai historiko-artistikoei buruz aholkuak eman, baimendu eta begirale izatea.
  - Gotzaindegiko ondasun higigaien gordetegia kudeatzea.

## **ELIZBARRUTIKO MUSEOA**

*Zuzendaria:* Eduardo Cortadi Olano

- Koruko Andre Mariaren Basilikako Santa Marta nabean dago kokatua Elizbarrutiko Museoa. Museoko bilduma iraunkorrak 150 artelan baino gehiago - eskultura, pintura eta urregintza- ditu, gure Elizbarrutiaren kultur ondarearen eta ondare artistikoaren erakusgarri direnak. Erdi Aroko artelanak, artelan modernoak eta artelan garaikideak dira, eta 400 metro koadrotan baino gehiagotan banatuta daude.

-Aldi baterako erakusketetarako hainbat leku ere baditu Museoak.

## **❖ Ekonomia eta Administrazioarako E.Z.**

*Arduraduna:* Ander Alcorta

[aalcorta@elizagipuzkoa.org](mailto:aalcorta@elizagipuzkoa.org)

### **Ekonomia Sailaren funtzioak**

- Elizbarrutiaren ondasunak administratzea, Gotzain jaunaren agintepean eta Ekonomia Gaietarako Kontseiluak ezarritako moduaren arabera.
- Elizbarrutiaren diru-sarrerekin, Gotzain jaunak edo hark baimendutako pertsona fisiko edo juridikoak legitimoki agindutako gastuak egitea.
- Urte amaieran, diru-sarreraren eta gastuen kontuak ematea Ekonomia Gaietarako Kontseiluaren aurrean, Gotzain jaunak emandako jarraibideekin bat etorritik.
- Elizbarrutiaren aurrekontua egitea, Gotzain jaunak emandako jarraibideekin eta Ekonomia Gaietarako Kontseiluak ezarritako moduarekin bat etorritik.
- Kleroa sostengatzeko elizbarrutiaren funts komunaren eta beste beharretarako elizbarrutiaren funtsaren administrazioa zuzentzea, ezarritako jarraibideen arabera.

- Administrazio arruntaren mugen barruan egin daitezkeen administrazio-ekintzak, garrantzi handiagoko administrazio-ekintzak edo apartekoak Gotzain jaunari baitagozkio, Kontsultoreen Batzordeari eta Ekonomia Gaietarako Kontseiluari aldez aurretik kontsultatuta.
- Bestelako funtzioak, Gotzain jaunaren mendeko pertsona juridiko publikoen ondasunen administrazioa zaintzea; zuzenbidearen, fundazioaren eskrituren edo horren estatutuen arabera administratzaile propiorik ez duen eta bere (Gozain jaunaren) agintepean dagoen pertsona juridiko publiko baten ondasunak administratzea, besteak beste.

## ❖ **Elizaren Ondare eta Obren E. Z.**

*Arduraduna:* Jon Elizalde  
 jelizalde@elizagipuzkoa.org

### **Elizbarrutiko eraikin ondareko arloaren zereginak**

- **Inbentarioaren kudeaketa.** Elizbarrutiko eraikin-ondasunen inbentarioa egin eta eguneratzea.  
 Lursailak identifikatu, tituluak aztertu, Katastroa eta Jabetzaren Erregistroa koordinatzea. Sarrerak/irteerak/aldaketak erregistratzea.
- **Eraikinen kudeaketa.** Bitartekaritza egin Elizaren (Gozaindegia, Parrokiak, Parroki elkarteak, Kongregazioak...) eta herri-erakundeen artean. Sal-erosketak kudeatu eta bitartekaritza egitea hirigintzako eragiketetan. Eraikinen erabilera erregulatzea (alokairuak, trukaketak, lagatzeak...).
- **Ondare aholkularitza.** Parrokiei aholkuak ematea, bai alor juridikoan, bai alor fiskalean.
- **Eraikuntza lanen kudeaketa.** Eraikuntza-lanak hartu, bideratu eta lanak egiteko ontzat ematea/ezezkoa ematea. Administrazio-baimenak eta -lizentziak eskuratzea (Eusko Jaurlaritza, DFG, Udala). ITE egin ahal izatea kudeatzea. Dirulaguntzak lortzeko bideak egitea.

- **Zerga eta tasen kudeaketa.** Era desberdinetako zergak (IBI, ICIO...) eta tasak kudeatzea (herri-bideen erabilera, garabiak...) eta bidegabekoen helegiteak aurkeztea.
- **Aseguruak.** Era desberdinetako aseguruak kudeatu (erakinak, jarduera, erantzukizun zibila...) eta ezbeharrak bideratzea.
- **Artxibategia.** Dokumentu historikoak eta arruntak artxibatu eta zaintzea: dokumentuak (agiriak, matrikulatzeak, dokumentu pribatuak...), obra-lanen txostenak, egiaztagiriak...

## ❖ Hedabideetarako Elizbarrutiko Zerbitzua

tfno.: 688832227 [prensa@elizagipuzkoa.org](mailto:prensa@elizagipuzkoa.org)

- Gizarteko Hedabideen Ordezkaritza, batez ere, Elizbarrutiko ebanjelizatze-lanerako bere laguntza ematen ahalegintzen da; aldi berean, eliz bizitzaren bozgorailu da Gipuzkoako gizartearen aurrean, Ebanjelioak duen mezu askatzailea eta humnizatzailea ezagutarazteko.

Horretarako erabiltzen ditugu, bai barneko baliabideak (web, mail, buletin eta sare sozialak), bai hedabide orotariko eta erlijiosoak, bertakoak nahiz orokorrak, Elizbarruti barruan nahiz kanpoan.

### Baliabideak

- ***BERRION Elizbarrutiko aldizkaria:*** elebitan argitaratzen da, bi edo hiru ale urtean, eta elizbarrutiko berriak ematen ditu. Informazio digitala erabili ohi ez duten hiritarren pentsatuz egina dago, batez ere.
- ***Elizbarrutiaren web orria:*** [www.elizagipuzkoa.org](http://www.elizagipuzkoa.org) Hauek dira beronen helburuak: elizbarrutiko izaera, egiturari dagokionaz eta arlo pastoralei dagokienaz, ezagutaraztea; elizbarrutiko gertaerei buruzko albisteak ematea, Gotzainaren hitza zainduz (idazlanak, homiliak, ospakizunak), batetik, eta parroki elkarten sentiera ere zainduz, bestetik. Web orri honek badu lotura sare sozialeko

kanalekin (Facebook, Twitter [@diocesis\\_ss](#) eta YouTube kanala [Diócesis de San Sebastián](#)).

- ***Igandeko Meza Teledonostin:*** Gotzainak igandero katedralean 18:00etan ospatu ohi duen Meza Teledonostik ematen du.
- ***COPE Katea:*** “El Espejo de Gipuzkoa”, elizbarrutikoa bakarra den informazioa ematen du.
- ***Radio María:*** “Agenda Diocesana” saioan gure elizbarrutiko albisterik printzipalenak ematen ditu astero. Taldeko kide bat arduratu ohi da, ostiralero, berriak emateaz.
- ***Infoeliza Zerbitzua.*** Azkenik, elizbarrutian etorkizunean izango diren ekintzen informazioa eta interesa duten beste berriak, WhatsApp bidez puntu-puntu jasotzeko egokiera eskaintzen dugu. Elizbarrutiaren informazio eguneratua izan nahi dutenek 689105191 telefonoko WhatsApp-era dei dezatela eta NAHI DUT mezua idatzi (gaztelaniaz jaso nahi izanez gero ALTA idatzi behar da).
- ***Munilla Gotzainaren WEB pertsonala***  
Donostiako gure Gotzain Munilla jauna ebanjelizatze-lan zabala egiten ari da, arlo pastoral eta hedabide desberdinetan (Radio María, EWTN, sare sozial, Teledonosti, Diario Vasco, etab.). Multimediako [www.enticonfio.org](http://www.enticonfio.org) deituran elkarrekin lotuak daude, hitzaren ministerioa egiteko sortuak izan diren baliabide hauek guztiak.

## **Boluntariotza**

Hedabideetako Zerbitzutik dei egiten digute boluntario gisa eginkizun honetan parte hartzera, grabaketak egiteko laguntza eskainiz nahiz parrokia eta artziprestaldeetatik materialak eta informazioa bidaliz. Oso gauza ona izango litzateke artziprestaldeetako zonalde bakoitzean izandako edota izaten ari diren jardueren informazioa emango duten boluntarioak izatea, web orrian nahiz beste hedabideen bidez zabaldu ahal izateko.

# **BIKARITZA JUDIZIALA**

Sebastián Uria Eizaguirre  
tribunala@elizagipuzkoa.org

- Bikaritza honek ezkontzaren deuseztatze- eta ezkontza “rato” eta burutu gabea lekatze- edo dispentsatze-kausetaz dihardu, batez ere.

Beronen zeregina ez da aipatu kausak bideratze hutsera mugatzen. Eskabidea onartu aurretik, ahalginak egiten dira senar-emazteekin harreman egokia izateko, bai beraiek eskaturik, bai beren parrokoek aholkatu nahiz iradokirik, baita auzitegiko kideek eskaturik ere.

- Auzitegi honek behin-betiko epaiketa egiten du Lehenengo Instantzian, Iruñeko Metropoli Auzitegi delarik Apelazioko Auzitegia.

-Auzitegi honetako kideek, Gotzainak horretarako bereziki mandatua emanik, Santuen Beatifikatze- eta Kanonizatze-kausetan ere jarduten dute. Era berean, Gotzainak eskatzen dienean, behar den aholkua ematen diote, Zuzenbidearekin

# **BIZITZA SAGARATUARENTZAKO GOTZAIN BIKARITZA**

**Jon Korta Arcelus, OCD**

**erlijiosak@elizagipuzkoa.org**

- Jainkoak Elizarentzat eta munduarentzat duen dohaina da bizitza sagaratuak. Gure Elizaren bizitzako arlo hain desberdinetako gizon zein emakume sagaratuak Jainkoaren aurpegia hurbiltzen digute eta, horrekin batera, Harengana hurbiltzeko leku bat eskaintzen digute.
- Erlijiosoak Jainko biziaren lekuko dira, eta pobrezia, karitate eta obediencia aholku ebanjelikoekin bat eginda, maitasunagatik ematen dute euren bizitza; batez ere, Jainkoaren maitasunaren handitasuna eta errukia oraindik ezagutu ez dituzten pertsonen alde. Jainkoaren inguruko euren esperientzia sakonetik, euren sagarapen bizitzan laguntzen diete erlijiosoek gaur egungo gizon-emakumeei.
- Donostiako gure Elizbarrutian, karisma askotarikoak hartzen ditu bizitza sagaratuak: hezkuntza mundutik, beharrea daudenekiko arretan, bai eta otoizlariak ere, isiltasunerako eta otoitzerako lekua aurkitzen baitute gaur egungo gizon-emakumeek.
- Une honetan, gizonen zein emakumeen ehundik gora komunitate ditu gure Elizbarrutiak, emakumeen bizitza aktiboko 81 komunitatetan, emakumeen bizitza kontenplatiboko 16 komunitatetan, 42 institutu erlijioso eta bizitza apostolikoko elkartetan eta gizonezkoen bizitza kontenplatiboko komunitate batean banatuta. Presentzia horiei bizitza sagaratuak beste modu batzuk gehitu behar zaizkie, institutu sekularrak, besteak beste. 2018az geroztik, bi sagaratu ditu Birjinen Ordenak.
- Bizitza sagaratuaren presentzia oso zabala da gure Elizbarrutian, eta gure lurraldeko herrialde askotan aurkituko ditugu gaur egungo gizon-emakumeentzat argi eta itzaropen iturri diren presentzia horiek.



# **ELIZBARRUTIKO GOBERNURAKO AHOLKU-ERAKUNDEAK**

## **❖ Gotzain kontseilu arrunta:**

- Osaketa: Bikario Nagusia, Kantzileria, eta Gotzaina
- Astero biltzen dira, zerbait berezirik ez badago

## **❖ Gotzain kontseilu zabala**

- Osaketa: Bikario Nagusia, Pastoraltzarako Bikarioak, Kantzileria eta Gotzaina
- Biltzen dira zerbait berezirik ez badago

## **❖ Artzipreste Kontseilua**

- Urtean zehar zazpi aldiz elkartzen dira.

## **❖ Kontseilu presbiterala**

- Apaizek osaturiko Kontseilua da, apaizak ordezkatzeko.
- Hiru aldiz biltzen da urtean

## **❖ Aholkularien kontseilua.**

- Osaketa: Kontseilu presbiteraleko kide batzuk eta gotzaina

## **❖ Ekonomi Kontseilua**

- Osaketa:Goztaina edo bere Ordezkarria eta Ekonomia Gaietarako eta zuzenbide zibileko gaietan adituak diran pertsonak.

## **❖ Elizbarrutiko Pastoraliza Batzordea**

- Osaketa: Bikarioak, Kantzileria, Kontseilu Presbiteraleko idazkaria, Elizbarrutiko ekonomoa, apaiz erlijioso, erlijiosa eta laikoak.
- Urtean hiru aldiz biltzen da.

## ZERBITZUEN KOKAPENA

**Gotzaindegian** Zabaleta 5 20002 Donostia 943 285 000

- **Bikaritza Nagusia**
- **Bikaritza Judiziala**
- **Ebanjelizatze Pastoraltzarako Bikaritza**
- **Liturgia eta Espiritualitate Past. Bikaritza**
- **Bizitza Sagaratuarentzako Bikaritza**
- **Haurren Katekesirako E. Z.**
- **Irakaskuntza E.Z**
- **Bokazio Pastoraltzarako E.Z.**
- **Helduen Katekumenotzarako E.Z.**
- **Inmigranteen Pastoraltzarko E.Z**
- **Ekumenismo E.Z.**
- **Liturgia E.Z.**
- **Erromesaldietarako E.Z.**
- **Osasun Pastoraltzarako E.Z.**
- **Espetxeratuekiko Pastoraltzarako E.Z.**
- **Ekonomia eta Administrazioarako E.Z.**
- **Elizaren Ondare eta Obren E.Z.**
- **Hedabideetarako E.Z.**

**Parroquia Iesu.** Paseo Barcelona, 2 20014 Donostia

- **Sozial eta Misio Pastoraltzarako Bikaritza**
- **Misio eta Kooperazio E.Z.** 943 427 754
- **Caritas** (Paseo Salamanca 2) 943440744

**San Juan 15** Donostia

- **Gazte Pastoralta** 943426748
- **Hezkide Eskola** 943 311 474

### **Narrika 1-3°**

- Familia Pastoraltza** 943 431 811
- COF 943 431 177/650 307 183

### **Villa Gentza** Martutene Aptdo. 1396 20080 San Sebastián

- S. D. Ap. Seglar y Nueva Evangelización 943 45 25 62

### **Seminarioa** Paseo de Heriz 82 (Edif. Seminario) 20008 San Sebastián

- Instituto Teológico Pío XII 943 21 24 99
- Archivo Histórico Diocesano 943212000
- Biblioteca Diocesana 943317990
- Seminario Mayor Diocesano 943317302
- Residencia Sacerdotal 943223869

### Basílica Santa María del Coro .31 de Agosto, 46 20003 Donostia

- Elizbarrutiko museoa**

### Urdaneta, 10 20006 Donostia. –

- Idatz**, Elizbarrutiko Liburu denda 943 465 326



Donostiako  
Elizbarrutia  
Diócesis de  
San Sebastián

## ELIZBARRUTIKO BERRIAK NOTICIAS DIOCESANAS



**WhatsApp**  
**Bidali "nahi dut"**  
Envía "alta"  
**689 105 191**



**Email**  
**Hemen eskatu**  
Solicita a  
**[info@elizagipuzkoa.org](mailto:info@elizagipuzkoa.org)**